

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan hauek izango dira beharko ditugun elementuak:

- **Baliabide fisikoak:** ordenagailua, bulegoa, mugikorra
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** informatikako eta webguneak diseinatzeko gaitasuna eta salmentarako eta antolaketarako abileziak.
- **Finantza-baliabideak:** gure aurrezkiak eta bankuko kreditua.

Hala ere, gure negozioak benetan ondo funtziona dezan beharrezko eta funtsezko baliabideak informatikako eta webgunean diseinatzeko gaitasuna eta salmentarako eta antolaketarako abileziak dira.

